

GUEROCO GUERO

(Jarraipena)

20 BURUA

Cembait calte eguiten dituan aserreac, ta areriotasunac; eta celan bear dan len bai len areriotasunetic urten.

1. §.

Betibere lenengotic artu dogun lana bota edo aldeguiten dogula, baña al baitanez darraiogula, ta artara dispondu, dendatu, prestatu, abiatu, ta biurtuten gareala, idoroco degu, gure guero onec persona arerioticsuen, erriertatsuen, ta aserrecorren artean bere badabela bere ostatua, toquia, jarlecu; oneetan bere calte andiac eguiten dituala. Bada adisquide bategaz austen dozunean, baldin bertati osotutera, alcartu, ta bat eguitera abiatuten ezpazara, jaquin eguizu, guero ta gueroago gachago eguingo jatzula, atzerago, urrinduago, ta ardura bagueago iraungo dozula bere areriotasunean, aserrean, icusi ecinean; alangoz ece, diño San Agustinec: «*arech landara arech* » andi gogorra eguitera datorren leguez, aserretasuna bere dator » gorroto andia izatea».

Orregaitic diño Senecac lib. 1, de ira. c. 8. «gauza ona da aserrearen » lenengo suari, muguidari, ta abiadurari contuz beguiratutea, aci » gaisto-au, aci, sortu, ta garautu baño len atera edo ebaguitea». Beragaitic dirauscu San Pabloc ephes. 4. «eztedilla eguzquia sartu » zure aserretasunaren ganean»: au da eztaizula iraun eguzquia sartu artean ceure aserrean: etzaitela joan oera, venguetaco deseoz: etzaitetzala artu gaberortec baquetu baga; acaba dedilla aserrea, demandea, errierte, ta sucia eguzquiz eguzqui. Bada bestela, su chatar chiquia andituten dan leguez, aserrea, icusi-ecina, ta gorrotoa bere gueiagotuco da; ta bein andituz, guero nequez, guichitu, ta amatauco da.

Celan gueure gogo, ta gustuco gauzac, gogoz ta pocic, artu ta atseguña emoten deuscuen; alan gogo contratoetan tristetu, ta aserratuten gara. Eta ain deunguero daroagu, ce, ecin egon gara orduan, beintzat araguiaren aldetic, aserratu baga, gorrotau baga, senticortu baga, ta venguetaco guraria baga. Ardi bat otsoa icustez latztu, larritu, bildurtu, izutu ta icaratuten dan leguez: alan eguiten gara gu bere arerioa icustez, beragaz aurquitu, ta idoroteaz. Orduan araguiaren aldetic ecin egon gara aserratu baga, min artu baga, barrua iraquin baga, su ta garrac artu baga. Beragaiti diño San Juan Crisostomoc hom. 13 tom. 2. «araguiac ecin areriq gaisquiña maitetu » lei; ez eta sentidu baga ichi, eguiten jacan vide baguea, dollorqueria, billautasuna, iraina, ta azpixonotasuna. Baña bai arimeac amatu, maitetu lei: cerren arimeac libertadea dan, bere jabe da, bere burua bere escuan dau. Araguiac barriz ez dau libertaderic, ez bere burua bere escuan, bere aguinduaren azpian.

2. c.

Celan dirian gorroto, modu bi, bata naturala, berezcoa, araguiarena eta bestea librea vorondatearena, alan dira bi maitetasun, ta amorio, bata naturala araguiarena, ta bestea librea, naizcoa, vorondatearena. Jesus gure Salvatzalleac euqui eban eriotzaren alderacotzat atzerapen au, edo ez gura au; naturalqui edo araguitearen aldetic gach eguiten jacan eriotzea; ta orregaiti cirautsan Aitari: «Nire Aita, al badedi, igaro bedi ni ganic Caliz garratz min au»: eztaquidala nic eriotzaric artu. Baña onegaz batera izan eban amorio librea; ta alan bere nai guraz ta vorondatez iltzan.

Eta onetan da agiuri, egon litequezala alcarregaz gorrotu naturala, ta amore librea. Euqui guñei areriores alderaco gorrotozcoa, amarezcoaz batera. Eta gorroto naturala edo araguiarena becatu ezpada bere, baña bai comunqui librea, vorondatezcoa. Gaisto batec ceure aita il deutsu, ceuri bere eguin deutsuz billauqueria, prestueztasun, ta laburtasun asco, asmau deutzuz guzurrezco falsiatasunac ta gaistaqueriac; gai onetan ecin zengoquez sentimentu, gorroto, ta griña natural edo araguiazcoa baga. Baña gorrotu natural berezco onec ezteutsu amore librea quenduten, eztau vorondatea gorrotora beartuten, eta ez arerio gaisquilleari parcatu, ta on eguiten era-gozten, agaiti libre da zure vorondatea.

Eta agaiti ascotan on ta mesedeac eguiten deutzaguz guri deunguero ta esquer gaistoz eranzun deuscun arerioari. Eta beragaiti

arerio perseguilla gaisquiña maitetu, ta ametaco mandamentua leguea ta aguindua emon eutsan Jaingoicoac arimeari, vorondate librea berac gura dabonaraco daucanari, eta ez araguiari, araguiaren gurariari, naiari. Eta alan bide bague bat eguiten deutsunean, bajatorzu alde batetic venguetaco, ta ordea biurtuteco muguida bat, nai bat, griña char bat, guraria andi bat, eta barriz beste aldetic gauea ondo ta astiro pensaturic, aurrecoa ta atzecoa, igaroa ta etorquizuna ondo gogoraturic, atzeratuten bazara vengantza artutetic; orduan araguia aserretuten da, ta ez arimea, diño San Crisostomoc hom. 13. tom. 2. Eta au da arimaren, eta gorputzaren, espirituaren ta araguiaren artean guerra arriscu ta pelligruzcoa, ta vitoria gloriosa, batac gorrotatuten dabena, besteac maitetuten dau: batac favore, besteac contra eguiten dabena.

Araguiaren gorroto naturala berezcoa, araguiaren lenerigo muguida, ta griña, araguiaren aserretutera, ta venguetara bat batean prest ta consideraciño bage esetsi ta abiatutea, au berau bacarric uste bage, gura ta gurez leguez jazotea, ezta becatu. Becatu izateco errazoiac euqui bear dau lecu ta parte, adimentuac ezagutu, vorondateac irabagui, ta guratu.

Oraindiño esan gura deutsut, batzuetan eztagoala erru edo becatu vorondatezco aserrean, aserretu baldin bear danean. Eta alan aserretuteaz leguez, ez aserretuteaz bere eguin leiteque becatu. Brrazoiaren contra, ta bide baguez aserratutea, vengantzaren billa ibiltea, dan leguez becatu; alan aserratu bear danean, ta aserretuteco ocasiñoa danean, ez aserretutea izango da becatu; alan iracasten dau San Juan Crisostomoc hom. 12. tom. 2, cergaitic ce, bear danean ez aserratuteac, paciencia ta epetasun gueiegui euquiteac, uts eguiñai ez jaramoteac, enzun-gor, ta ez-icusi eguiteac ta ez castigatuteac emoten dau ocasiñoa ta videa falta gueiago eguiteco, vicio ta gaisqueria burua goratuteco ta gueituteco, eta ez bacarric gaistoac, baita bere onac gaistaqueriara convidetaco.

Aserratu bear danean ez aserratutea, senticortu bear danean, ez sentietea, beti bat, beti euli macala, gueldoa, gueldia, mamuquioa, bigun beraa izatea, ecerbereztasuna da, ez guizontasuna, Santo Tomas Eracusle andiac diño 2. 2. q. 158. a. 8.: «gueiegui ase-» rretutea dan leguez becatu, guichiegui edo bapere ez eguitea bear » danean, ezta becatu bage». Bere demporan modu onean, justutasunac escatuten dabenean aserratutea, ta alan aserraturic cemaitutea ta neurri onez castigutea, gauza ona da ta santua. Ain santua, non diño San Basilioc hom. 9. de ira: «aserratu bage, apur bat edo-

» labere coleran sartu baga, ta beregan biztu baga, ezтира gaista-
 » queriác zucen castiguetan, ez vicioac sustraitic ateretan, eta ez
 » obra onac benetan eguiten».

Eta diño San Agustinec hom. 16. de verb. Dñi. «eztau aítac bere
 » semea ondo zucenduco, guichi bat vicitu ta aserratuten ezpada». Aita batec bere soseguan dagoala, cerbait estutu ta viztu baga, aserre pusca bat eracutsi baga, eztau ondo castigauco bere semea; ezteutso iracasico cer eguin bear daben. Bear danean, bear da gar chiqui bat, arpegui ilun bat, begui biurtze bat eracutsi, zorroz verba eguin, cerbait sumindu ta aserratu, batezbere onez onera ondu gura eztabenean semeac. Onetaraco dauco aítac escu ta escubidea, semeari gogor verba eguiteco, eta bai eche ta errietaco buruac ta cargudunac bere aguitarintzaren azpian dagozanen contra jaqui ta aserratuteco, uts eguiteac jagui, ta jarraituten direanean. Alan aserratu cirian Moyses ta Matatias, exod. 31. Machab. 2, idolo edo jainco falsoac adoratzen cituezanen contra. Alan Jesus gure Salvatzalleac bere, viztu zanean illen artetic, gogor verba eguin eutseen bere Discipulo batzuei, deítuten cituela adimentu bagueac, sinist gogorrac, ta sinistuteco atzeratuac, Luc. ultimo.

Alan San Pablo Apostoluac bere cemaitu cituen Galaciaco genteac galat. 5., cirautsela. «O Galatar cenzun bagueac, noc erotu, » ta zorabiatu zaitue, len leguez, orain bere eguia ez obeditu, ta » sinistuteco?»). Verboc desonragarriac, garratz miñac cirian Galatarentzat: baña cirialaco biotz onez, ta vorondate obeaz esanac, ez eban orretan becauric eguin. Au berau da San Agustinec bere diñoana lib. eterod. cap. 19.: «ezta anajaren contra aserratuten, » anajac daben becatuaren contra aserratuten dana». Alangoac becatua gorrotuten dabe, ez becataria. Gorroto dogu suac emoten daben quea, eta maite dogu sua bera. Ecin icusi dogu gaissoasuna, baña bai gaissoa bera. Onetan eguin oi dogu medicuac, barberuac, osaguille batec gaissoaz eguin daroana. Onec penatuten dabe gaissoa, minduna; ebaquiten dabe; odol ustu ardura baga; quendu aragui zatiac; emon edaria garratz samiñac; arerio batec leguez, ta gaisquin baten erara darabilde gaisso guizagaixoa. Baña, guzti au egutien dabelaco gacharen contra, ta ez gaissoaren contra: ez gogo deungueaz, ezpada maitetasunaz, ta osatuteco vorondate onaz; beragaitic eguiten dabe guztia, ontzat eroaten, maitetuten da, eta lecu onera ezarteen da. Alanche bear dira bada errazoiac batera, vorondate on bategaz eguin, falta ta uts eguiteac erremedietaco, vicio charrac quenduteco, ta becatuac aldeguiteco, eguiten dirían erriertac, aserreat,

cemaiac, oñoteac, dedarrac, ta aguiricac bere estimatu, maitetu, ta ontzat artu.

3. §.

Baña beguiratu ta gorde bear da bacocho, becatuen contra esetsi, eraso, ta aserratuten danean, larregui aserratutic, gueiegui cole-ratutic; maitetasunez amorez, gozotasunez, ta vorondate onez eguin bear dabena, colera gogorrez, venganzaz, su ta garrez eguitetic. Gurasoac, predicariac, ugazabac ta besteai iracasteco, zaindu, ta gobernetaco cargua dabenac, eztabe orrembeste quexatu, ta iraquin bear, non ganez eguinic, gueiagora igaroric, amorea gorrotora biurtu leien. Beragaitic diño Profeta Santuac psal. 4. «aserre zaitece ta ez » eguizue becuric». Aserratu bai, baña bere neurrian, mugonez, pacienciaren muga, ta marra igaro bague: faltari bai, baña faltadunari gorrotoric, malsintasunic equi bague.

Ceure umea, otseña, oguipecoa, edo cargucoa zucendu, arteztu ta cenzundu gura dozunean, ascotan ceu jarten zara cenzun bearrago. Ceure umea cenzundu, ta zucendu gura dozunean, ain aserre, colera, ta su andian sartuten zara, ain itsuturic, cenzun bagueturic, ta pacienciatic camporaturic ta urtenic ifinten zara ain ernegaturic, ta aimbeste birao, añen, aguiraca ta dedar eguiten dozu, ce eche guztia darabiltzu goicoaz bera, ta azquenean zeure ume ta otseñen faltea, ceurea andiagoa eguiten da, eta ceu erruquigarriago, erre-mediaquizonago, ta cenzun bearrago jarten zara.

Bada ez bestela, baña errozoiaz ta modu onean, falta ta faltaduna erremedietea gaitic, neurtiz aserratutea, gauza ona da, ta santua. Eta onelan aserratuteari dericho: celo *onezco aserrea*; amorezco, ta ondo gurazco aserrea, Beste aserre bat da, vorondate gaistozcoa, vengantzazcoa, gorrotozcoa, icusi ecinezcoa, ez becatua erremodietaco, ezpada becatari berari gach emoteco equi oi dana: eta oni dericho: *miozco aserrea*: becatuzco aserrea, errazoiaren contracoa intenciño deunguecoa, vorondate charrecoa, lar-gueieguia, ganez eguiña, neurritic urtena, marratic camporatua, mugatic atarea.

Onetatic, onelan ganez eguitetic, larregui aserratutic, sortu, jaio, ta ernetan dira calte andiac, erriertac, verba deungac, juramentuac, biraoac, madaricaciñoac, diferenciac, auciac, gorrotoac, eriotzac, eta bere buruaren eta besteen calte gogor zorigaistocoac, galduerac, ta maquina bat gauza char negargarriac. Gauza ascoc calte eguiten deutse cristiñauari; eta eutetatic bat ta ondo andia, ta besteen buru ta sustraia da, ira colera aserretasuna, venguetao

guraria citela. Onec arima ta gorputza zaurituten ditu, onec biac gaixotuten ditu, egunac laburtuten ditu, osasuna guichitu, norbera macaldu, ta dempora baño len burua zuritu ta ulleac urdinduten ditu. Alan adietan emoten dau Espiritu Santuac Eccl. 30. Eta Senecac iracasten dau par. 18. «gorde bear dala bacocho gueiegui ase-
rratuteric, alde eguin bear dala coleratic, contu equi bear jacola aserracuntzeari, ta au ez bacarric vicitzaren maitetasun prestua-
gaitic, baita gorputzeco Osasuna gaitic bere. Cergaitic ce aserra-
cuntzac, venguetaco grñac, barruco gorrotoac, errencoretasunac, colerac, ta suac arimeari ta gorputzari calte eguiten deutso, bie
sentierazoten deutso, biac mimberatuten ditu, biac gaissotuten ditu.

Eta alan persona coleran sartua vicieguiac, erreac, aldi charrecoac, su-gartuac, ta aserracorrac ez oi dau begui ordecoen bearric, eztitu bere umeen umeac bere inguruan icusten, ta guichi onetaricoric zartuten da. Bere barruco toleraren suac, ta iraquiñac errai guztiac erreten deutzaz, egoei, quiscortu, ta ustelduten deutzaz. Eta alan icusico dozu, bere eguitez exetuac, ta vengatzalleac dirian personac, baldin berpetatic bereaz urteten ezpadabe, venguetan ezpadira, egosten ta deseguiten diriola. Eta baldin venguetan badira, eureagaz urteten badabe, escuac odolutea jazoten bada bere, guero damutuac, penatuac, gogaituac, naibaguetuac, ta minuac dabiltz. Alangoz ece, nola nai, nai vengaturic, nai vengatu bague, nai bere gogoaz cumplitu, nai ez bereaz urten, ezta alangoentzat ezpada damua, senti-
mendua, naibaguea, atsecabea, pena, gogaitasuna, ta mintasuna.

Eta ezpabere beguira eguiozu aserraturic arericturic dabillan bati; celan verba eguiten daben; celan aotic bitza darion; celan be-
guiac su chatar bi eguinic dituan; ecin azalac artu dau; lurra osticoca joten dau; jatorcazanacaz verba eguiten, eztau jaramoten; ezteutso iñori errespetic, beguiramenturic, ez lotsaric. Ero, zoro bat dirudi aurrera ez atzera beguiratu бага; etorquizenen conturic eguin бага; guztiac guzurtuten ditu; desonretan ditu, mesprecietan ditu; il ta ondatu gura ditu. Beguiratu eguiozu bada alango bati, ta icasi, ta cenzundu zaite beregan. Eta jaquin eguizu, ceu bere aserres zarea-
nean, alan zagozala, a dirudizula zoraturic, buru bagueturic, cenzun бага, conorte бага, ta itsuturic ifinten zarea, ordi baten antzera barregarria zarea.

4. §.

Aserre dan persona batec, eztirudi lengoa. Agaitic cirautsen Platonec bere icasleai fulgen. 1. 7. c. 2. «aserre cirianeac ifini eguiela

» aurean espillu bat, ta an ondo icusi eguezala euren buruac». Eta Senecac diño 1. 2. de ira cap. 36. «batzuei on eguin daroioela, aserre » dirianean euren buruac espilluan beguiratuteac». An icusten da, an da aguri, an arguiro aguertu ta ezagututen da, ce aldaturic, ce besteturic, ce echura baguea, ce ezainduric ifinten dan aserreaz asereduna. San Juan Crisostomoc diño hom. 25. in 3 joan. tomo 3. «Balecus bere burua aserre dan personac, aserre danean, ez leuque » ez, barriz ez aserratuteco beste adivideric bear». Bada orduan ain dago ezaindua, ce ezaintasun ac berac gorde lei aurrerantzean ez gueiago aserretuteric. Coleran dagoanac aimbeste eroqueria, ta umequeria esan ta eguiten dau, ce berari beguira dagozanac lotsatuten dira bera icustez, ta berari enzuteaz.

Eta alangoac eurac bere, beragan biurtuten dirianean, (bada coleran dagoana eztago beragan) noc esan lei, ceimbat damu, garbai, ta naibague artuten daben? Ce azquen ondo gaistoa idoroten daben? Ce on bear, triste, jausia gueldituten dan? Orduan oartu, ta gogoratuten jaco, bere adisquideac icusi dabela, ta bai bere areriac bere; guztia beguira egon jaczala: eta berac bere aldi charrean ta coleran eguin dituzan eroqueria zoragarriacaz, adisquideac damu ta naibaguea artu dabela, eta arericac atseguña, gozo ta poza. Orduan erretan jaco bere barrua, tristetu, mindu, ta iotsatuten da. Eta guztiz bere, baldin bere aserrean gachic iñori eguin badeutso, colperic emon badau, barberuen bearrean iñor imini badau, edo bere verbeetan iñoc preñaric artu badau; emen dira cinac, eta minac, andira quexac, gogaitzeac, larritzeac, erneguac, aguiracac, birac ta añenac. Orduan jarten da bere buruaz gogoetan, esaten dabela, San Juan Crisostomoc diñoana hom. 4. tom. 5. «Cer neban nic eguiteco » atan sartuteco? iñor injurietan, ta ofendietan ibilteco? Esamesa » ta verba zorrotz astun minduac esateco? Deunguero verba eguiteco? » Colpeac emoteco? Ondatuco al dira; azquenecoac eguin al dituez » onelango eguitecoac, ni onelango eguitecoan ifini nabenac, onem » bestera ecarri nabenac». Baldin eznaogean banengo, gordeco ninteque barriz onelaco itsumendiric, zorabiatasunic, aserracuntzatic. Onela esan daroa beragan biurtuten danean, oztu danean, aserrea emetu ta amatau dabenean. Onexec dira aserracuntzaren arrastuac, onatzac, emparauac, ondorengo ondaquiñac, onec dira disputa, demanda, errierta, ta gorrotoen frutuac, arimea galtzea, gorputza nequetutea, ta tristura andi baten azpian damuturic ifintea, ta ichitea.

Guizon aserratua, sucarra edo calentura dabenean pulsua leguez da quexatua dago, eztau soseguric. Gau ilun bat dirudi: gau ilunean

dabillenac eztau ezaututen ce colore daben gauzac: cein dan verdea, ta cein gorria, edo urdiña: alan guizon coleratuac bere eztau ezagututen, nos verba ondo eguiten daben, ta nos deunguero; nos dojan artez, ta nos macur; conorte бага, itsutua, itsumuca dabil; ilunetan dabillena leguez, or emen, bateric bestera, estropezu, beaztopa guztiac eguiten dau, videtic camporaturic dabil.

Onelangoetan deabru gaisto asmutsuac bere eguiten ditu orduan bereac. Lapurrac dabiltzan leguez gau ilun ta axetsuen beguira ostuteco; eta otsoa dempora char, euritsu, ta mudatuen billa artaldeco ariai esetsiteco; ta arraintzallea ur loi nastuen billa, arraiñac artuteco; alan deabru lapur finac, otso goseaquillac, ta arraintzalle jaquitunac leguez billatu, aurquitu, idoroten ditu erac bere gais-taqueriac eguiteco, ta celatuca dago, nos dirian colera, gorroto, icusiecin, ta aserrearen iluntzac, ecachac, ur loiac, ocasiño ta eraldiac.

Persona areriotu, aserratuen artean, bere gogara, gusto, ta atseguin andian dago deabrua: an dago bere erara, auqueran, an idoroten dau onda-nagoa; an dau bere ostatua, an bide batez mandatu bi eguiten dituz; cerren aserretzallea, ta aserratua, biac baten bere-tuten dituz. Eta au ezta mirarituteco; bada ezta becatuic coleran itsutuac, sutuac, sor gortuac dagoan batec eztaiqueanic. Eta ezta zurtasuna alangoacaz, alan daragoiengan, batutea, alcartutea, lagundutea, ta sartutea. Batezbere aen artean ordiric, edo zure arerioric bada, orduan urrindu zaite, igues eguizu, gorde zaite, ez beragana urreratu, alde eguizu, larga eguizu, bego, ta betor bere ganera etorrico dan ocasiñoa, galvidea, ta caltea: bada bestela, peligrua da, zure ganera etorri eztidin. Ordiac eztaqui ceri daragoion; ta arerioac bere besteri emon gura deutsan mina, zuri emongo deutsu. Beragaitic etzai te alangoacaz sartu, ez lagundu ondo beguiratu бага, ta ceure burua contuz gorde бага. Bada aserrea itsua da, ordia da, ta arerioa bere ocasiñoaz valiatuten da.

Bada baldin colereac, ta venguetaco deseo ta naigura ordenabagueac, ta errazoitic camporatuac aimbeste calte eguiten badau; alan itsutu, izutu, zoratu, cenzun ta xdimentutic ateraten badau; eta deabruac bere orduan, coleratuen artean danean, bere jocoac jocatuten baditu, contu andia colerari equi bear jaco, eguin bear jaco guardia; billatu bear jaco osagarria, abiatu ta dendatu bear da laster medicinac, sendagarriac, erremedioac artzera. Eta nos? Len bait len, ceimbat lasterren, gueroco lucetu бага. Bada suaren antzecoa da colera, ta ondo daquizu, sua chiqui pusca dan artean, errezago dala amateutea, eta iltea.

Jarraituco da.